



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Mariak, berriz, gertakari guztiok gogoan hartzen zituen, bere barruan hausnartuz”

2023ko urtarrilaren 1a
Andre Maria, Jainkoaren Ama (A)

Lukas 2, 16-21.

Joan ziren lasterka eta han aurkitu zituzten Maria, Jose eta jaioberria askan etzana.

Ikusi zutenean, haurtxo hartaz esan zitzaiena kontatu zuten.

Artzainek esandakoa entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren. Mariak, berriz, gertakari guztiok gogoan hartzen zituen, bere barruan hausnartuz.

Artzainak entzun eta ikusi zutenarengatik Jainkoari aintzaka eta goraka itzuli ziren, dena aingeruak esan bezala gertatu baitzitzaien.

Jaio eta zortzi egunera haurra erdaindu zutenean, Jesus izena ezarri zioten, sortu aurretik aingeruak esan bezala..

Mariak, berriz, gertakari guztiok gogoan hartzen zituen, bere barruan hausnartuz.

GAUR

Jose Antonio Pagola

Jesusen jaiotzaren kontakizuna honela bukatzen du Lukasek: irakurleei adieraziz «**Mariak gauza hauek guztiak bihotzean gordetzen dituela**». Ez du gordetzen gertatua, iraganeko zenbait oroitzapen bezala, baizik bere bizitza guztian eguneratuko eta berbiziko duen esperientzia bezala.

Ez da funtsik gabeko oharpena. Fede-eredu dugu Maria. Ebanjelari honen iritziz, Jesus Salbatzaileagan sinestea ez da aspaldiko garai bateko gauzak gogoratzea, baizik haren indar salbatzailea gaur esperimentatzea, gure bizitza gizatarago egiteko gai dela esperimentatzea.

Horregatik, baliabide literario berezi-bereziaz baliatzen da Lukas. Jesus ez da iraganeko norbait. Nahita errepikatzen du ezen Jesus berpiztuaren salbazioa «**GAUR**» berean ari zaigula eskaintzen, harekin topo egiten dugun bakoitzean.

Hona adibide batzuk.

Honela iragartzen digu Jesusen jaiotza: «**Daviden hirian Salbatzaile bat jaio zaizue gaur**». *Gaur ere jaio daiteke Jesus guretzat. Gaur sar daiteke gure bizitzan eta alda dezake betiko. Bizi berrira jaio gaitzek haren.*

Galileako herrixka batean ezindu bat ekarri diote Jesusi. Hau hunkitu egin da, hura bekatuak blokeaturik ikustean, eta sendatu egin du barkazioa eskainiz: «**Barkatuak dituzu zeure bekatuak**». Jainkoa goratuz erreazionatu du jendeak: «**Gauza harrigarriak ikusi ditugu gaur**». *Guk ere esperimanta dezakegu barkazioa, Jainkoaren bakea eta barneko poza, Jesusi senda gaitzan uzten badiogu.*

Jeriko hirian, Jesusek Zakeoren etxean hartu du ostatu, zerga-biltzaile aberats eta boteretsu haren etxean. Jesusekin topo egiteak erabat eraldatu du Zakeo: hainbat jenderi lapurtua itzuliko du eta pobreekin partekatuko bere aberastasunak. Jesusek diotso: «**Gaur salbazioa iritsi da etxe honetara**». Jesusi geure bizitzan sartzen uzten badiogu, *gaur berean hasi ahal izango dugu geuk ere biziera duin, haurride arteko eta solidario bat.*

Jesus hilzorian da gurutzera, bi gaizkileren artean. Haietako batek konfiantza hartu du Jesusengan: «**Jesus, gogora zaitez nitaz zeure erreinuan izango zarenean**». Bat-batean erreazionatu du Jesusek: «**Gaur nirekin izango zara paradisu**». *Gure heriotzako ordua ere salbazio-eguna izango da. Hainbeste espero genituen hitz hauek entzungo ditugu azkenean: hartzazu atsedena, izan konfiantza nigan, gaur nirekin izango zara, eta betiko.*

Gaur urteberria hasi dugu. Baina, zer izan daiteke guretzat zerbait berri eta on? Zeinek jaiotaraziko du guran poz berri bat? Zein psikologok irakatsiko digu gizatasun handiagoko izaten? Ezer gutxirako dira desio onak. Guran erretzen den gauzarik hoberenerako esna bizitza da garrantzia duena. Egutero eskaintzen digu Jainkoak salbazioa. Ez da zertan ezeren zain egon. «**Gaur**» hau bera izan daiteke niretzat salbazio-egun.